

Euskal AEko ondasunen esportazioek % 29,0 egin zuten behera 2025eko abuztuan

2025eko lehenengo zortzi hilabeteetako metatuan, esportazioek % 3 egin dute atzera, produktu energetikoek eraginda, horien kanpoko salmentak % 47,1 jaitsi baitziren, eta produktu ez-energetikoak, aldiz, % 0,5 igo dira

2025eko abuztuan, Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 29,0 egin dute behera urte arteko tasari erreparatuta, Eustaten datuen arabera. Zenbatekoa 1.508,7 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.123,6 milioi euroen aldean. *Produktu energetikoen* esportazioek % 77,6 egin zuten behera eta *ez-energetikoen* esportazioek % 22,5. Hil honetan merkataritza-saldoa negatiboa da, 175 milioi euro ingurukoa, eta estaldura-tasa % 89,6koa.

Esportazioek Bizkaian izan dute jaitsierarik handiena (-% 36,3), bai *produktu ez-energetikoen* esportazioek behera egin dutelako (-% 22,6) bai, batez ere, *energetikoen* esportazioek behera egin dutelako, -% 78,4. Araban esportazioek, osotasunean, % 32,7 egin dute behera eta Gipuzkoan % 16,3.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Abuztua 2025

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Abuztua			Abuztua		
	2024	2025	Gehikuntza (%)	2024	2025	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.123.586	1.508.716	-29,0	1.971.091	1.683.731	-14,6
ENERGIAZKO GAIAK	247.731	55.461	-77,6	581.980	399.988	-31,3
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	1.875.856	1.453.254	-22,5	1.389.112	1.283.742	-7,6
URTEKO METATUA	20.499.911	19.879.710	-3,0	18.058.059	17.694.528	-2,0
ENERGIAZKO GAIAK	1.503.817	795.373	-47,1	4.924.809	3.729.620	-24,3
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	18.996.095	19.084.338	0,5	13.133.249	13.964.908	6,3
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	416.879	280.501	-32,7	361.036	308.619	-14,5
URTEKO METATUA	5.769.925	6.085.252	5,5	3.894.813	4.500.424	15,5
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	1.001.494	638.239	-36,3	1.218.654	1.013.919	-16,8
URTEKO METATUA	8.133.555	7.041.110	-13,4	10.606.918	9.478.257	-10,6
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	705.213	589.976	-16,3	391.402	361.193	-7,7
URTEKO METATUA	6.596.431	6.753.348	2,4	3.556.327	3.715.847	4,5

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2025eko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** % 14,6ko jaitsiera izan zuten, eta 1.683,7 milioi eurora iritsi ziren. Inportazio **energetikoe**k % 31,3 egin zuten behera eta **ez-energetikoe**k % 7,6. Jaitsierak orokorrak dira lurralde guztietan: Bizkaian % 16,8koa, Araban % 14,5koa eta Gipuzkoan % 7,7koa.

Produktuen arabera (muga-zergen partidak)

Xehetasunetan arreta jarritz, 969 **partida esportatzaileetako** bost partida nagusiak hauek dira: “*Automobilentzako zatiak eta osagarriak*” (122,7 milioi esportatu dira eta % 31,4ko jaitsiera izan du aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta); “*Petrolio-olio finduak*” (48,8 milioi esportatu dira, % 44,7 gutxiago); “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (45,5 milioi eta % 26,9ko jaitsiera); “*Burdinurtuzko, burdinazko eta altzairuzko xafla, barra, profil, hodi eta antzekoez egindako eraikuntzak*” (36,7 milioi eta % 3,8ko igoera); eta, bosgarren lekuan, “*Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobinak*” (35,7 milioi eta, kasu honetan, % 32,9ko igoera). Bost partida horiek, abuztuan, merkaturatutako guztizkoaren % 19,2 izan dira, eta 289,5 milioi euroko balioa dute.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.123.586	1.508.716	100,0	-29,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	178.958	122.691	8,1	-31,4
Petrolioaren olio finduak	88.174	48.770	3,2	-44,7
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	62.298	45.523	3,0	-26,9
Xaflen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	35.417	36.764	2,4	3,8
Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	26.877	35.732	2,4	32,9
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	41.114	35.272	2,3	-14,2
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	31.506	31.779	2,1	0,9
Kaubuzko pneumatiko berriak	69.518	31.748	2,1	-54,3
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	20.554	24.516	1,6	19,3
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	30.662	23.994	1,6	-21,7
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	26.865	23.481	1,6	-12,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	14.821	19.432	1,3	31,1
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	105.804	19.261	1,3	-81,8
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak	17.279	18.407	1,2	6,5
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	15.278	18.234	1,2	19,4
Berotan ijetzitako produktu lauak, aleatu gabeko eta txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm	7.360	17.963	1,2	144,1
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	4.748	17.915	1,2	277,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	36.528	17.910	1,2	-51,0
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	21.167	16.920	1,1	-20,1
Soja-olioa	5.897	16.026	1,1	171,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	28.721	14.752	1,0	-48,6
Ardoa, mahats freskoarena	13.247	14.417	1,0	8,8
Metal arruntzeko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	15.625	14.326	0,9	-8,3
Pizte motorren atalak txinparta pizteko edo konprimitzeko	10.592	13.405	0,9	26,6
Zirkuitu elektrikoetako konektoreak, larakoak, enbuxueak, lanpara-euskarriak... > o = 1.000 V tentsio baterako eta zuntz optikoen konektoreetarako	11.741	13.349	0,9	13,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

25 partida garrantzitsuenen artean, honako hauen urte arteko igoerak nabarmentzen dira: “*Berotan ijetzitako produktu lauak, aleatu gabeko eta xaflatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm*” (% 144,1), “*Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral boluminoso oliorik gabe eta pisan % 70etik beherako edukiarekin*” (% 277,3) eta “*Soja-olioa*” (% 171,8).

Azpirarratzekoa da, halaber, baina kontrako norabidean, “Kautxuzko pneumatiko berrien” jaitsiera handia, 31,7 milioi esportatuta eta aurreko urtean baino 37,8 milioi gutxiagorekin, murrizketa % 54,3koa izanik; eta “Kobre findu gabea eta fintze elektrolitikorako kobre anodoak”, 2024ko abuztuko 105,8 milioitik aurtengo hilabete bereko 19,3 milioira jaitsi baita, eta alde negatiboa % 81,8koa da.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	416.879	280.501	100,0	-32,7
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	53.405	26.363	9,4	-50,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	58.792	19.651	7,0	-66,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	28.293	14.218	5,1	-49,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	27.960	12.484	4,5	-55,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	44.867	12.413	4,4	-72,3
Ardoa, mahats freskoarena	11.829	12.170	4,3	2,9
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	8.492	9.990	3,6	17,6
Hodiak eta hodian osagarriak (adibidez: loturak (erragailuak), ukondoak, zorroak), nikelzkoak	3.026	8.319	3,0	174,9
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	6.765	6.592	2,3	-2,6
Burdinazko edo altzairuzko hodiak, soldaduak, errematxatuak... sekzio zirkularrekoak, kanpo-diametroa > 406,4 mm-koak	4.075	5.144	1,8	26,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Arabian, bost partida esportatzaile nagusiek urte arteko % 49tik gorako jaitsierak izan dituzte, eta nabarmentzen dira “Kautxuzko pneumatiko berriak” (-% 72,3) eta “Ibilgailu automobilen osagarriak” (-% 66,6). Automobilgintzaren sektorean biltzen diren partidak, aurreko urteko abuztuarekin alderatuta, 112,8 milioi jaitsi dira, 185,4tik 72,6 milioira.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.001.494	638.239	100,0	-36,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	58.094	49.019	7,7	-15,6
Petrolioaren olio finduak	85.316	46.369	7,3	-45,7
Turboerreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	30.971	31.674	5,0	2,3
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	105.804	19.261	3,0	-81,8
Kautxuzko pneumatiko berriak	23.892	18.836	3,0	-21,2
Berotan ijertzitako produktu lauak, aleatu gabeko eta txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm	7.360	17.939	2,8	143,7
Blodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisanu % 70etik beherako edukiarekin	4.748	17.915	2,8	277,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	8.024	17.393	2,7	116,8
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	9.980	16.681	2,6	67,1
Soja-olioa	5.897	16.026	2,5	171,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian, hamar partida nagusien artean, nabarmentzen dira “Petrolio-olio finduen” esportazioak (46,4 milioi esportatuta eta aurreko urtean baino 38,9 milioi gutxiago, % 45,7ko murrizketa izanik) eta “Kobre findu gabea, fintze elektrolitikorako kobre anodoak”, 19,3 milioi esportatuta eta % 81,8 gutxiago.

Nabarmentzekoak dira honako hauetan izandako igoerak: “Berotan ijetzitako produktu lauak, aleatu gabeko eta txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm” (17,9 milioi esportatuta eta aurreko urtean baino 10,6 milioi gehiago, eta igoera, beraz, % 143,7koa da); “Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral boluminoso oliorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin” (17,9 milioi esportatuta, % 277,3 gehiago); “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (% 116,8 gehiago); eta “Soja-olioa” (% 171,8 gehiago).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	705.213	589.976	100,0	-16,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	62.072	54.021	9,2	-13,0
Xaffen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	13.555	27.484	4,7	102,8
Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	28.553	23.474	4,0	-17,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	29.619	23.232	3,9	-21,6
Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	5.537	21.063	3,6	280,4
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	13.506	18.016	3,1	33,4
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	14.444	17.222	2,9	19,2
Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	14.171	13.513	2,3	-4,6
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriak	15.014	11.419	1,9	-23,9
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	11.450	11.380	1,9	-0,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkatatzaileen estatistika

Gipuzkoan, behera egin dute salmentak “Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak” atalean (2024ko abuztuan baino 8,0 milioi euro gutxiago, -% 13) eta “Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak” atalean (6,4 milioi, % 21,6 gutxiago). Aitzitik, nabarmentzekoak dira “Burdinurtuzko, burdinazko eta altzairuzko xafra, barra, profil, hodi eta antzekoak egindako eraikuntzak” partidan izandako hobekuntza (% 102,8koa, 27,5 milioi esportatuta) eta “Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobinak” partidakoa (% 280,4, eta 21,1 milioi esportatuta).

2025eko abuztuan, “Industria kimikoko eta lotutako beste prestakin eta produktu batzuk” ataleko inportazioek % 33,5 egin dute gora, eta “Olio gordinen” inportazioek % 29,8 behera

Inportazioak muga-zergen partiden arabera aztertuz gero, ikus daiteke garrantzitsuenak, “Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak”, guztizkoaren % 16,3 izanik, % 29,8ko jaitsiera izan duela. Halaber, nabarmen egin du behera (-% 53,6) “Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak” partidak, eta 72,3 milioitik 33,6ra jaitsi da, bai eta “Petrolioaren olio finduak” partidak ere (-% 19,2). Aitzitik, hazkunde esanguratsua izan dute honako hauen inportazioek: “Industria kimikoko eta lotutako beste prestakin eta produktu batzuk” (% 33,5), eta 35,6 milioitik 47,6 milioira igo dira; “Elkagai eta edarien industrietan erabiltako gai usaintsuen nahasketak” (% 37,6), eta 29,6 milioitik 40,7 milioira igo dira; “Ekilore-olioak” (% 240,0), 4,9 milioitik 16,7 milioira; eta “Enboto, diesel edo erdi-diesel motorrak” (% 162,2, 4,1 milioitik 10,8 milioira).

Jatorri-helmuga herrialdeak, 2025eko abuztua

Hilabete honetan, ranking esportatzailearen lehen postuetan honako herrialde hauek daude:

- Frantzia:** gure erkidegotik 228,5 milioiko balioa duten produktuak jaso ditu, eta estaldura-tasa % 189,8koa da.
- Alemania:** 196,9 milioi euroko ondasunak esportatu dira herrialde horretara, eta estaldura-tasa % 94,2koa da.
- Italia:** 103,2 milioi euroko ondasunak esportatu dira herrialde horretara, eta estaldura-tasa % 155,8koa da.
- Erresuma Batua:** gure esportazioetatik 94,5 milioi hartu ditu, eta % 216,5eko estaldura-tasa lortu da.
- Estatu Batuak:** herrialde horretara 84,7 milioi euroko salmentak egin dira, eta estaldura-tasa % 51,1ekoa izan da.

Bost herrialde horiek esportazioen guztizkoaren % 46,9 hartzen dute, eta horietako hiru EB27koak dira, eta bertan biltzen da esportazioen % 63,4.

Hilabete honetan, inportazio gehienak honako herrialde hauetatik etorri dira, eta hurrenkera honetan: Alemania 209 milioi, Estatu Batuak 165,8 milioi, Txina 140,7 milioi, Frantzia 120,4 milioi eta Mexiko 116,7 milioi.

2025eko lehen zortzi hilabeteetako metatuan, esportazioek % 3,0, 620,2 milioi euro, egin dute atzera, 2024ko aldi berarekin alderatuta

Lehenengo zortzi hilabeteetan, Euskal AEko esportazioek % 3,0 egin dute atzera aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, eta 620,2 milioi gutxiago izan dira. Esportazioen zenbatekoa, aldi honetan, 19.880 milioikoa izan da. Bizkaiko esportazioak izan dira Euskal AEko handienak, guztira 7.041,1 milioi; Gipuzkoak 6.753 milioi esportatu ditu eta Arabak 6.085,3 milioi. Bizkaiko esportazioak % 13,4 jaitsi dira, eta Arabako eta Gipuzkoako esportazioek aurreko urtekoak gainditu dituzte, % 5,5 eta % 2,4, hurrenez hurren.

Produktu-mota kontuan hartuta, Autonomia Erkidego osoan “Produktu ez-energetikoak” izan ziren esportazioen buruan, 19.084.3 milioi eurekin, 2024ko lehenengo zortzi hilabeteetan baino % 0,5 gehiago. Igoera txiki hori ez da homogeneoa izan: Bizkaiko esportazio ez-energetikoen % 5,8 egin dute behera, eta Arabakoek eta Gipuzkoakoek, aldiz, iazkoak gainditu dituzte, % 5,4 eta % 2,4, hurrenez hurren. Aitzitik, “Produktu energetikoen” esportazioek % 47,1 egin dute atzera urte arteko konparazioan.

“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” partida dago esportazioen buruan, 2.083,8 milioi merkaturatuta, eta % 36,3ko igoera izan du. 25 partida nagusien artean, esportazioetan hazkunderik handienak izan dituztenak dira “Trenbideetarako eta antzekoetarako ibilgailuen parteak” (339,2 milioi esportatuta eta % 86,9ko aldea); “Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-, bagaje- eta posta-autoak” (281,6 milioi esportatuta eta % 96,9 gehiago) eta “Soja-olioa” (155,6 milioi esportatuta eta aurreko urteko aldi berean baino 95.2 milioi gehiago).

Aitzitik, hiru partida nagusik behera egin dute: “Petrolio-olio finduak” (-% 35,1 eta 365,2 milioi gutxiago), “Kautxuzko pneumatiko berriak” (-% 31,4 eta 225 milioi gutxiago) eta “Ibilgailu automobilen parteak eta osagarriak” (-% 14,2 eta 220,5 milioi gutxiago).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Abuztua 2025

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	19.879.710
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.083.806
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.335.215
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	943.479
4	2710	Petrolioaren olio finduak	675.000
5	4011	Kautzuko pneumatiko berriak	490.481
6	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	390.749
7	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	385.922
8	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	348.822
9	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	339.176
10	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsatzailak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	311.942
11	8605	Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	281.650
12	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	258.200
13	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	257.328
14	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako enbrazaturak	245.626
15	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	223.335
16	9990	Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	203.364
17	8428	Igogailuak, eskalera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	186.535
18	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbrazatura moldeatu batzuk	171.124
19	8702	Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	169.838
20	7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	168.767
21	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	162.608
22	8501	Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	160.540
23	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	157.651
24	1507	Soja-olioa	155.598
25	8301	Metal arruntzeko giltzarra, sarraila, morroilo eta giltzak	154.906

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urriaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2025eko lehenengo zortzi hilabete hauetako rankingaren arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 15,0ekin, eta guztira 2.972.8 milioi eurekin. Herrialde horretatik oso gertu dago Frantzia, 2.929,7 milioirekin (gustizkoaren % 14,7). Jarraian daude Erresuma Batua (1.297,7 milioi, % 6,5), Estatu Batuak (1.191,5 milioi, % 6,0) eta Italia (1.189,5 milioi, % 6,0). Bost herrialde horien artean Euskadiko esportazioen % 48,2 biltzen dute.


Euskal AEko inportazioen metatuta 17.694,5 milioi euro ingurukoa da. Urte arteko konparazioa eginda, 363,5 milioi dira, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino % 2 gutxiago. Jaitsiera horren arrazoia da Bizkaian erositakoa (9.478,3 milioi) % 10,6 gutxiago dela (1.128.7 milioi). Bestalde, gora egin dute inportazioek Araban, 605,6 milioi gehiago eta guztira 4.500,4 milioi; bai eta Gipuzkoan ere, 159,5 milioi gehiago, eta guztira 3.715,8 milioi.

“Produktu ez-energetikoen” inportazioek % 6,3 egin dute gora, baina “Produktu energetikoen” inportazioek % 24,3 egin dute behera.

2025eko urtariletik uztaile bitartean, Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 2.185.2 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta estaldura-tasa % 112,3koa izan da.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Miloi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62